

Buesa omenduko du PSEk, haren hilketaren seigarren urtemugan

Txarli Prietok esan du aurtengo gorazarrea «jokaleku politiko berri batean» egingo dela

ERREDAKZIOA - GASTEIZ

Sei urte beteko dira bihar ETAK Fernando Buesa buruzagi sozialista eta haren bizkartzain Jorge Diez bonba-autoz hil zituenetik. Egun hori urtero gogoratzen du alderdi sozialistak, eta aurtun ere halaxe egingo du. Hala, ostiralean egingo die PSE-EEK gorazarre, atentatua jazo zen tokian jarritako oroitarrian.

Arabako PSE-EEko idazkari nagusi Txarli Prietok atzo azaldu zituen omenaldiaren inguruko xehetasunak komunikabideen aurrean. Buesa eta Diezen omeneko ekitaldia «jokaleku berri batean» egingo dela azpimarratu zuen Prietok. Egoera politiko berri hori zenbait faktorek eragin dutela azaldu zuen: batetik, ETAK 33 hilabete daramatza inor hil gabe; eta, bestetik, Espainia-

ko Gobernuak bakea lortzea du helburu. Xede hori lortzeko «Zuzenbide Estatua, balio demokratikoak, biktimekiko elkartasuna eta ETaren amaiera» oinarri dituela azpimarratu zuen Prietok.

Horren ildoan, Arabako PSE-EEko idazkari nagusiak azpimarratu zuen egungo egoera politikoan «arriskuak» egon badaudela, baina baita «itxaropenerako» arrazioak ere. «Sozialistok terro-

rismoaren amaieraren buruan egon nahi dugu», erantsi zuen.

Ordezkaritza zabala

Fernando Buesa eta Jorge Diezen alde Arabako PSEk antolatu duen omenaldian PSOEko buruzagi askok ere parte hartuko dute, Prietok jakinarazi zuenez. Besteak beste, honako politikari hauek izango dira bertan: Felipe

Gonzalez Espainiako Gobernuko presidente izandakoa, Jose Antonio Alonso eta Juan Fernando Lopez Aguilar Barne eta Justizia ministroak, Jose Blanco PSOEko Antolakuntza idazkaria, Javier Rojo Senatuko presidentea, Alfredo Perez Rubalcaba PSOEko Kongresuan duen eleduna eta Patxi Lopez PSE-EEko idazkari nagusia.

ETAren zenbait biktimek ere parte hartuko dute Buesa eta Diezen aldeko ekitaldian: tartean, Eduardo Madina, Barbara Durkhop eta Francisco Tomas y Valienteren senideak izango dira.

Ekitaldian, lore eskaintza egingo die PSEk Buesa eta Diezi, eta hainbat buruzagi sozialistak hitz egingo dute.

UDALBIDE

Lankidetzaz hitzarmenak sinatzeko deialdia ireki du Udalbidek

ERREDAKZIOA - GASTEIZ

EAJk eta EAK kudeatzen duten Udalbiltzak bultzatutako Udalbide Elkarlan Elkarteak lankidetzaz hitzarmenak sinatzeko deialdia zabaldu du hilaren 28ra arte. Aurkeztu beharreko proposamen guztiek Udalbide Elkarlan Elkartearen xede eta asmoekin bat egin behar dutela gogora ekarri du elkarteak: euskara babestea; euskal nortasuna eta kultura Euskal Herriko lurralde guztietan gordetzea eta sustatzea; lurralde arteko harremana eta lankidetzaz sustatzea; eta Euskal Herria lurralde bakar baten gisa ikustera bideratutako ekimenak aurrera eramatea.

Hitzarmenak eta dagozkien diru laguntzak hainbat irizpideren arabera banatuko direla nabarmendu du Elkarteak. Besteak beste, Udalbide Elkarlan Elkartearen Egitasmo Markoaren xedeekin bat egin behar dute egitasmoek. Hala, jarduerak dagokion lur-eremuan izan dezakeen eragina, aurkeztutako ekimenaren berezitasuna eta diru laguntza eskatzen duenaren esperientzia hartuko dira kontuan.

Elkarteak prentsa ohar batean jakitera eman duenez, iragan urtean berrogeita hamar egitasmo baino gehiago abiatu ziren Udalbideren laguntzari esker. Eta, orotara, elkarteak 1,3 milioi euro inguru banatu zituen proiektu horien artean.



KAZETARIEK hartu zituzten atzo Eusko Legebiltzarrean legebiltzarkideen eserlekuak; argazkian, Ulpiano Duque hainbat urtez Ganberako informazioa landu zuen Herri Irratiko kazetari izandakoa. DAVID AGUILAR. EFE

Politikariak entzule, eta kronikariak albiste

OMENALDIA EUSKO LEGEBILTZARREKO KAZETARIEI. Ganberan lanean ari diren eta aritu diren profesionali egun batez jarlekua utzi diete legebiltzarkideek

I. S. - GASTEIZ

Gaurkotasanak agintzen du. Horra hor komunikabideen legea. Eta aurreko urtean hauteskondeen gaurkotasanak zapuztu zuen Eusko Legebiltzarreko kazetariak aginduta zuten omenaldi ekitaldia, Ganbera osatu zeneko 25. urtemugaren karietara.

Emandako hitza, dena den, atzo bete zen; informazioaren profesionalak egun batez politikarien eserlekuetan jarri, eta osoko bilkurako protagonista bihurtu ziren. Politikariak, aldiz, isilik geratzea eta prentsari dagokion balkoitik batzarra jarraitzea egokitu zitzaizkien.

Ezohiko bilkurak ezohiko ma- haia izan zuen gidari. Izaskun Bilbao Ganberako Lehendakari- zari eutsi zion, eta, laguntzaile eta aurkezle, Julio Ibarra eta Isabel Cobo kazetariak izan zituen.

Hitzaldiek nostalgia kutsua jarri zuten. Miren Sanchez Erauskin Legebiltzarreko lehen protokoloburuak ezin izan zuen ekitaldian parte hartu, eta haren mezua Elena Lopez Aretxabaleta egungo arduradunak irakurri zuen. Erakundeak Vicente Gokoetxea kaleko pisu batean izan zituen hastapenak izan zituen gogoan, egungo egoitzan kokatu baino lehen.

Ramon Mur kazetari betera- noak, berriz, Legebiltzarrean la-

nean ari diren kazetarien zori- gaiztoko patua aldarrikatu zuen. «Batzuetan atzetik bila ari zaiz- kigu, eta beste batzuetan behar- rezkoak ez garela edo gogaika- rriak garela dirudi».

Serioago, Izaskun Bilbao ka- zetariak hogeita bost urteotan eginiko lana eskertu zien, eta Le- gebiltzarra erakunde gardena bihurtzeko apustua bere egin zuen, herritarren mesederako.

Hitzaldien txanda amaituta, zenbait kronikarik hitz egin zu- ten. Ulpiano Duque, esaterako, guztiei barre eragin zien, batzor- deetan lo hartzen zuen politika- riaren istorioa eta beste pasadi- zo gogoangarri batzuk ahotan hartuta.

EUSKAL PRESOK

Marixol Iparragirrek eta Mikel Albisuk gose greba utzi dute

Marixol Iparragirre eta Mikel Albisu euskal presoek gose greba utzi zuten larunbatean, 11 egun ezer jan gabe igaro ostean. Iparragirre eta Albisu Draguignango espetxean daude, Frantziako Marseillako Les Baumettes espetxetik eraman zituztenean hasi zuten protesta, beste euskal presoekin elkartu zitzatela aldarrikatzeko. Askatasunaren arabera, gose greba utzi dute bizi-baldintzak hobetuko dizkietela hitzeman dietelako kartzelako arduradunek.

NAFARROA

Apirilaren 30 arte jarraituko du lanean Autogobernu Lan Taldeak

Nafarroako Parlamentuko Autogobernu Lan Taldeak apirilaren 30a arte luzatu du bere lana. Foru Hobekuntza- ren erreformarako egindako zirriborroari taldeek aurkeztu- tutako zuzenketen eztabaida uste baino luzeagoa izaten ari da. Hasieran Lan Taldeak hil honetan bukatu behar zuen bere lana.

BIKTIMAK

Rosa Diezek «bidegabe» jokatu duela dio PSOEk

PSOEK ETAren biktimekin duen jarrera gaitzetsiz Rosa Diez eurodiputatuak Jose Luis Rodriguez Zapaterori igorritako gutun irekia kritika- tu du PSOEk. Diezek alder- dia «bidegabe» tratatu duela esan du Alfonso Perales Politi- ka Autonomikorako idazka- riak. PSEK, berriz, Zapatero- rekin zuzenean hitz egin de- zala eskatu dio Diezi.